

txostena 2009





txostena 200

aurkibidea

| | |
|--|----|
| • Presidentearen agurra | 5 |
| • CSCE-EKGKren 2009ko ekitaldiko jarduera-txostena | 7 |
| Izaera orokorrekoa | 8 |
| Araubide Juridikoaren Batzordea | 10 |
| Sustapen Batzordea | 15 |
| • BITARTUren 2009ko ekitaldiko Oroitidazkia | 23 |
| • Kontseiluaren osaera | 25 |
| • Aurrekontu-alderdia | 29 |
| • Estatistika-eranskina | 35 |

Lehendakariaren agurra

Lehenik, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilura itzuli izanak eta bere lehendakari izendatu izanak ematen didan aukera honetaz baliatu nahi dut kooperatibista guztioi agur bat bidaltzeko, zuen ahalegin eta arduraldiaz kooperatibismoa sendotzen laguntzen baituzue, egungo krisi-egoera orokorrean garapen ekonomiko, sozial eta iraunkorra lortzeko formula baliozko eta bideragarri gisa.

Atsegin handia da Oroitidazki honen bidez Kontseilu honek 2009ko ekitaldian egindako jardueren berri ematea, bai erakunde publiko eta aholku-emaile den aldetik eta bai kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko eta kooperatiba eta kooperatibista guztientzat zerbitzuak emateko organoa den aldetik. Jarduera horiek dokumentu planifikatzaileetan dauden aurreikuspenen arabera garatu dira, eta 2009ko ekitaldia 2009/2012 Plan Estrategikoan sarturiko lau urteetako lehenengoa izan da, Plana 2008ko ekitaldiaren bukaeran onartu zelarik.

Bidezkoa da aitortzea Memoria edo Oroitidazki honetan zehazturiko jardueretan kontseilari guztiek izandako dedikazioa edo arduraldia, eta batez ere eskertzen diet ekitaldi honetan kargu-aldia bukatu dutenei, baita Kontseiluko langileei ere, beren zereginetan sistematizazioaren eta hobekuntzaren ondoriozko eskakizunetara egokitzeko lanean jarraitzen baitute, guztien arteko eta kontseilariarenaren osagarri den ahaleginean integratuz.

Kontseilu honek egindako lana, bai botere publikoek eta bai Euskal Kooperatiben Mugimenduaren eragileek kooperatiba-sustapenaren eta zerbitzu-bokazioaren bidean aurrera jarraitzeko egindako lan gisa ulertzea espero dut, gure erakundeak duela hogeita bost urte baino gehiago hasi eta hobetzen saiatu den bidean, alegia.



EKGKren 2009ko ekitaldiko jarduera-txostena

EKGKren 2008ko 2009ko ekitaldiko jarduera-txostena

Kontseiluaren jarduera-arloak

Bere arau erregulatzailen arabera betetzen dituen funtzioen izaera kontuan hartuta, Kontseiluaren jarduerak ondorengo arlo hauetan sartzen dira:

- **Administrazioarekiko elkarlana**, aginduzko edo nahitaezko txostenetan, kooperatiba-elkarteak kitatzekok kitatu eta eraldatzeko espedienteetan, eta Kooperatiben Erregistroan egindako kontsultetan zertutako administrazio-jardueren bidez.
- **Zerbitzu-ematea**, batez ere gatazkak konpontzera bideratuta BITARTUren bidez, hau arduratzen delarik arbitraje, adiskidetze eta bitartekotzako prozedurak bideratzeaz.
- **Kooperatibismoa sustatzea**, zuzeneko jardun jarduera bidez, edota erakunde laguntzaileekin (Elkarte Kooperatiboekin edo EAEko Unibertsitateetako unibertsitateetako Ikasketa Kooperatibetako Institutuekin) egindako hitzarmen bidez, baita Kontseilu honen eta Euskal Kooperatiben Mugimenduko beste erakunde batzuen partaidetzaz eratutako estaldura-erakundeen bidez ere, jardun estrategikoaren hainbat eremutan:
 - ★ Kooperatiba berriak sustatzea (Elkar-Lan, S. Coop.)
 - ★ Abalak ematea (Oinarri, S.G.R.) eta
 - ★ Azterketa eta ikerketa kooperatibismoaren araudi eta sozio-ekonomiaren arloan (Elkar-Ikertegia, S. Coop.)

miaren arloan (Elkar-Ikertegia, S. Coop.)

Jarduera horiek, dauden barne-organo eta koordinazio-organoak kontuan hartuta, ondorengo gauzatze-modalitate hauetakoren baten bidez egiten dira:

- Administrazioarekiko lankidetzajarduerak, baita zuzenean Kontseiluaren aurrean planteaturiko kontsultei erantzutea ere, **Araubide Juridikoaren Batzordearen** bidez gauzatzen dira, eta batzorde hau osatzen duten kideak Kontseiluaren osaerari dagokion atalean agertuko dira.
- Gatazkak konpontzeari buruzko jarduerak **BITARTU**ren bidez egin dira, eta dagozkien atalean agertuko da horren txosten edo Oroitidazkia.
- Kooperatibismoa sustatzeko jarduerak **Sustapen Batzordearen** bidez garatu dira, eta kasu honetan ere batzordekideak Kontseiluaren osaerari dagokion atalean daude zehaztuta.

Halaber, esan behar da **bitariko lan-taldea eratu dela Kontseiluaren eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren artean**, baterako jarduerak koordinatzen dituelarik zenbait ekimen orokorretan.

Ondoren, Kontseiluak 2009ko ekitaldian garatutako jarduerak agertzen dira, horien ardura duten Batzordeen eta BITARTU Zerbitzuaren arabera multzokatuta, eta horien aurretik izaera orokorrekoak agertzen dira.

Izaera orokorreko jarduerak

2009ko ekitaldia izan da 2009/2012 Plan Estrategikoan ezarritako denboraldian lehenengoa, eta identifikaturiko erronka estrategiko nagusiak laburtuko dira

jarraian, baita horiek garatzeko behar diren jarduera-ildoak ere.

2009 / 2012 hausnarketa estrategikoa

- Kontseiluaren osaketan aurrera egitea, kooperatibismoaren errealitateaz eta etorkizunaz topaketa, eztabaida eta hitzarmenerako organo gisa.

Hona hemen planteaturiko ekintza-ildoak:

- ★ Kontseilua osatzen duten hiru sektoreen artean sinergiak identifikatu eta bultzatzea, esku-hartze heterogeneoa duten proiektuei lehentasuna emanez.
- ★ FOROKOOP-i laguntzea etorkizuneko kooperatibismoarentzat interesgarriak diren gaien azterketan eta eztabaidan, ekintza-proposamenak eginez.
- ★ Euskal Erakunde Publikoekin Lankidetzak Akordio berria dinamizatu eta koordinatzea.
- Kooperatibismoa erakundeetara eta gizartera zabaltzeko eginkizuna betetzea, ekintza honen bidez:
 - ★ Kooperatibismoaren elementu berezien, lorpenen eta balioen (partehartze, elkartasun eta bestelakoen) zabalkundea, eta horiek berrikuntzarako eta sozietate- eta enpresalehiakortasunerako faktore gisa hartzea, egungo errealitatean, batez ere.
- Prestakuntza kooperatiboari zabal-tasun handiagoa ematea, ondorengo ekintzaildo hauen bidez:
 - ★ Kontseiluaren barruan unibertsitateen artean koordinazio-plataforma

garatzea egindakoa aprobetxatzeko eta proiektu berriei elkarrekin aurre egiteko.

- ★ Kooperatibismoaren inguruko pres-takuntza-ekintzak egitea bigarren mailako hezkuntzan eta lanbide-heziketan.
- ★ Prestakuntza kooperatiboan dauden eskariak aztertzea, baita eskaintako erantzunak eta eskaintza abe-ratsagoa sendotzeko erak ere.
- Kooperatibismoa eta enplegu koope-ratiboa sustatzeko jarduerak bultzatzea, ondorengo jardueren bidez:
 - ★ Kooperatiben Mugimenduko erakun-deei eta kooperatiba berriak sus-tatzeko erakundeei laguntza ematea.
 - ★ Kooperatiba-ikuspegiak beste sozie-tate-eredu batzuen aldean dituen elementu bereizgarriak eta onak zehaztea.
 - ★ Kooperatiben Mugimenduko senior aholkularien ezagupen eta gaita-sunez baliatzea.
 - ★ Enpleguari eustera bideratutako ekimenak zehaztu eta garatzea.

Izaera orokorreko jardueren eremuan aipagarriak dira Kontseilari ohien Foroari buruzkoak, baita Eztabaida Koope-ratiborako Foroari (FOROKOOP), Eusko Jaurlaritzarekiko Lankidetzak Akordioari eta Kontseiluko langileen ordainketa eta errekonozimendu sistemari buruzkoak ere.

Kontseilari ohien Foroa

Bilera egin zen, baina XXV. Urteurreneko liburuaren aurkezpenean zentratu zen, eta ez zitzaion behar bezalako arretarik jarri

dokumentu planifikatzaileen alderdi nagusien berri emateko eta horiei buruzko iradokizunak jasotzeko helburuari. Horrek eragin du 2010eko ekitaldirako aurrez ikusitako bilera uztailean egitea, horrela ahalbidetuz aurreikusitako helburua betetzea: deialdia baino lehen Kontseiluan indarrean dauden dokumentu planifikatzaileak (Plan Estrategikoa eta 2010eko Kudeaketa Plana) berrikustea.

Forokoop

Foro Birtuala pixkanaka finkatzeaz gain (eta hori Forokoop-eko web guneak izandako bisita-kopuruan ikusi da) aipatzekoa da 2009ko ekitaldian aurrez aurreko bi jardunaldi egin direla.

Jardunaldi horietako lehena Bilbon egin zen, Kooperatibismoaren Mundu Eguna ospatzeko ekitaldian, eta bertan, Work Coffee-ren aurreko esparru-hitzaldien ondoren, pertsonak enpresan duten parte-hartzearena eztabaidatu zen; ondo bete ziren helburuak, bai espero zen parte-hartzaile kopuruari zegokionez eta bai bertaratuek jardueraz egindako balorazioari zegokionez.

Bigarren jardunaldian, Arantzazun (Oñati), erakunde autogestionatuen gaia eztabaidatu zen, aurrez Euskal Herriko zenbait esperientzia autogestionaturen azalpenak egin zirelarik; han ere bete ziren aurrez ikusitako helburuak.

Eusko Jaurlaritzarekiko Lankidetzak Akordioa

Jarraipen Batzordeak egindako bilera bakarrak (2009-2-25) Hitzarmena egin zenetik (2005eko ekainetik) gauzaturiko jardueren Oroitidazki edo txostena formalki

onartzeko balio izan zuen, eta Akordio berri batean kontuan hartzeko moduko ekintza eta jarduera-ildo berrien proposamenak aztertzeko. Geroztik, eta Osoko Bilkuran, Kontseilu honi horrelako Lankidetzak Akordioetan egokituko litzaiokeen zereginaz eztabaidatu da, besteak beste, eta horri buruzko proposamena 2010eko lehen lauhilekoan zehaztu eta onartzea espero da.

Langileen ordainsaria eta lanaren aitorza edo ezagutza

Kontseiluaren langileei buruzko Garapen Plan Zuzentzailearen esparruan, bakoitzaren Lanbide Garapen Plana zehaztu da, eta Plan horretan ezarritako ikastaroak eta egitarauak gauzatu dira.

Araubide Juridikoaren batordea

Esparru arauemailearen hobekuntza

Aginduzko Txostenak:

- Ekitaldian zehar aginduzko txostenak egin dira ondorengo hauetaz:
 - ★ DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena.
 - ★ DEKRETUA, 251/2006 Dekretua, abenduaren 12koa, aldatzen duena, eta hau Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko teknikariek enpresetan eta lantokietan segurtasun- eta osasun-baldintzak egiaztatze lanak egiteko gaikuntza- eta antolaketa-baldintzak eta prozedura arautzen dituena da.

- ★ AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Euskadiko Sozietate Kooperatibo Txikien Estatutu Sozialen eredu orientagarria onartzen duena.
- ★ AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatiba-elkarteen urteko kontuak aurkezteko Eskabide-eredua eta administrazio-organoaren ziurtagiria onartzen dituena.
- ★ AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, langileek enpresetan parte hartzeko laguntzak antolatzen dituena.
- ★ AGINDUA, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiako enpresetan laguntza teknikorako laguntzak arautzen dituena.
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Gizarte Ekonomian murgiltzeko laguntzak antolatzen dituena.
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomiako enpresetan elkarteak sortu eta sendotzera bideratutako laguntzak ezartzen dituena.
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituena.
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Gizarte Ekonomiako Prestakuntzarako laguntzak ezartzen dituena.
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Gizarte Ekonomian enpresa-lankidetzarako laguntzak ezartzen dituena..
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, EAEko Kooperatiba Sozietateetan eta Lan Sozietateetan inbertsioak egiteko laguntzak bideratzen dituena.
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidego barruan bidaiari-garraio publikoan diharduten automobiletan lokalizaziorako eta kontrolerako ekipo eta elementuak jartzeko laguntzak arautzeko dena.
- ★ Agindua EAEko salgaien errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzak eskatzeko deialdia egiten duena.
- ★ Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.
- ★ Agindua, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuarena, 2009an kooperatibetan aldi baterako langabezian dauden bazkide langile edo laneko bazkideen lanbide-gaikuntzarako 2009an laguntza ekonomikoak emateko deialdia egiten duena.
- ★ Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berriak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.
- ★ Agindua, salgaien errepideko garraio publikoaren arloan enpresa-kontzen-

- traziorako laguntza-programa bat ezartzen duena.
- ★ Agindu-proiektua, salgaien errepideko garraio publikoaren arloan enpresa-kontzentrazioarako laguntza-programa bat ezartzen duena.
 - ★ Agindu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.
 - ★ Agindu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berriak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duena.
 - ★ Agindu-proiektua, EAEko salgaien errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntzak eskatzeko deialdia egiten duena.
 - ★ Agindu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidego barruan bidaiarien hiriko eta hiriarteko garraio publikoaren sektorean lokalizatorako eta kontrolerako ekipo eta elementuak jartzeko laguntzak arautzeko dena.
 - ★ Agindu-proiektua, salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntzak emateko deialdia egiten duena.
 - ★ AGINDUA, 2009ko azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzak iragartzen dituena.
 - ★ DEKRETUA, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa arautzen duena; prestazio hau 18/2008
- LEGEAk, abenduaren 23koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak ezarria da.
- ★ AGINDUA, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, lan-merkatuaren azterketa egiteko laguntzak arautzen dituen 2008ko uztailaren 30eko Agindua aldatzen duena.
 - ★ DEKRETUA, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duena; Errenta hau 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak ezarria da.
- **Indarrean dagoen Kooperatiba Legea aldatzeko proposamena.** 2009ko martxoan txosten bat egin zen, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak planteaturiko proposamenari Kontseilu honek egindako oharrek zeuzkana. Jarduera horretaz gain, 2009ko ekitaldirako aurreikusita zegoen Kontseiluaren eta Konfederazioaren artean bitariko *ad hoc* batzorde bat eratzea horren tratamendurako. Kooperatiben Konfederazioaren barruan hausnarketa-aldi baten ondoren, ekimena birplanteatu egin da eta egindako azterketa eta proposamenak Eusko Jaurlaritzari aurkeztea erabaki da, Gobernuak berak har dezan egokiena iruditzen zaion erabakia proposamen horiei buruz.
 - **Kontseilu hau arautzen duen esparru arau-emailea hobetzea.** Lege-mailako aginduek etorkizunean izan ditzaketen aldaketak gorabehera, bere osaerari buruzko agindu arau-emaileak, lege-mailako aldaketarik eskatzen ez dutenak, egokitzea aukeratu da.
 - **Kooperatiba-ikuskaritzako eredu az-terketa-dokumentua egitea.** Edukien aurkibidea egin da, eta horren ga-

rapena, Kooperatiben Erregistroko teknikarien laguntzaz eta ondoren Osoko Bilkuran eztabaidatuta, 2010eko ekitaldian egingo da, kooperatibarauketaren lege-esparruari buruzko ekimenak ezagutu ondoren.

Kooperatiben iraungitzeak

● Ondorengo kitatze edo likidazio-espeditenteak bideratu dira:

- ★ CATLAN, S. Coop. (Etxebizitza); Gasteiz
- ★ EDIREN. S. COOP. (Lan Elkartua); Aretxabaleta
- ★ OBRERA DE CONSUMO AURRERA, S. COOP. (Kontsumoa); Getxo
- ★ ARTEBI, S. COOP. (Lan Elkartua); Galdakao
- ★ ELIKADI, S. COOP. (Lan Elkartua); Gasteiz
- ★ GARBIBERRI GARBIKETAK, S. COOP. (Lan Elkartua); Legazpi
- ★ GDR GESTIÓN DE RELACIONES, S. COOP. (Lan Elkartua); Arrasate
- ★ JAZKI-17, S. COOP. (Lan Elkartua); Bilbo
- ★ SERJOIK, S. Coop. (Lan Elkartua); Eibar
- ★ ARRIAR. S. COOP. (Lan Elkartua); Irura
- ★ GURE HERRIAN, S. Coop. (Etxebizitza); Irún
- ★ VIVIENDAS LURREA, S. Coop. (Etxebizitza); Gasteiz
- ★ UGALDETXO, S. Coop. (Etxebizitza); Donostia

- ★ PLAZATIK, S. Coop. (Etxebizitza); Tolosa
- ★ VIVIENDAS ALAVESAS, S. Coop. (Etxebizitza); Gasteiz
- ★ METAL ERP, S. Coop. (Lan Elkartua); Getxo
- ★ BAKEA III MILENIO, S. Coop. (Lan Elkartua); Lekeitio
- ★ CARGAMAR, S. Coop. (Lan Elkartua); Oiartzun
- ★ TROQUELERÍA OBERENA, S. Coop. (Lan Elkartua); Bilbo
- ★ SUSPELA, S. Coop. (Lan Elkartua); Lezo
- ★ HONDAIRU, S. Coop. (Lan Elkartua); Irun

Sozietate-eraldaketak

Ondorengo kooperatiba hauen sozietate-ereldaketa homologatzearen aldeko txostena egin da:

- ★ COPYKIOSKO, S. COOP. (Lan Elkartua); Bilbo
- ★ MANIPULADOS VIVASA, S. COOP. (Lan Elkartua); Bilbo
- ★ EQUILAN, S. COOP. (Lan Elkartua); Hernani
- ★ PERFILVENT, S. COOP. (Lan Elkartua); Hernani
- ★ LAUKIDE, S. COOP. (Lan Elkartua); Asteasu

Guztira 15 kooperatibari beren egoera aktiboari buruz informazioa eskatu zaie, kitatze-prozesu edo sozietate-ereldaketa posible baten kasuan gure laguntza dutela jakin dezaten.

Kontsultak

- Guztira **7 kontsulta formal** jaso eta erantzun dira ondorengo gai hauei buruz:
- Gurasoen Irakaskuntzako Kooperatibako bazkide bi gurasoak izendatzeko aukerari buruzko kontsulta.
- Legearen 142. artikuluan araututakoaren arabera, Administrazioak Kooperatiba batean esku hartzeko prozedurari buruzko kontsulta.
- Etxebizitza Kooperatiba batetik irteteko prozedurari eta horren ondorio juridikoei buruzko kontsulta.
- Gurasoen Irakaskuntzako Kooperatiban irakasleak bazkide laguntzaile gisa sartzeko aukerari buruz dagokion irizpena emateko zain dagoen kontsulta.

- Kooperatiba batek, zuzeneko esleipenaren bidez, kudeaketa publikoko lursailak eskuratzeko aukerari buruzko kontsulta.
- Etxebizitza Kooperatiba batean zain dagoen bazkide batek bazkide esleipendun batek duen gaitasun berbera ote duen Kontseilu Errektoreko kideak aukeratzeko.

Indarrean dagoen legeria kooperatiboaren arabera, zuzenbidearen arabera ote den Kooperatiba batek proposaturiko likidazioa.

Bestalde, **abokatu aholkulariak hainbat eratako 366 kontsultari erantzun die zuzenean**; hona hemen zein kooperatibamotatatik egin zaizkion, eta zer-nolako gaien inguruan:



| (Kooperatiba motak) | Kontsulta.kop |
|---------------------|---------------|
| LAN ELKARTUA | 163 |
| ETXE BIZITZAK | 130 |
| IRAKASKUNTZA | 34 |
| KONTSUMOA | 15 |
| GARRAIOLARIAK | 14 |
| KREDITUA | 2 |
| NEKAZARITZAKOAK | 8 |
| GUZTIRA | 366 |

| (Azterturiko gaiak) | Kontsul.kop |
|-------------------------------------|-------------|
| BAZKIDEEN ESKUBIDEAK | 102 |
| ORGANO SOZIALAK | 45 |
| ARAUBIDE EKONOMIKOA | 49 |
| ZIGOR-ARAUBIDEA | 17 |
| LAN-GAIK | 48 |
| KONTABILITATEA | 12 |
| AUZIGAIK | 35 |
| HERRI-ADMINISTRAZIOARI BURUZKO GAIK | 17 |
| KITAPENA, LIKIDAZIOA | 32 |
| ERAKETA | 9 |
| ASKOTARIKOAK | 0 |
| GUZTIRA | 366 |

Sustapen batzordea

Jardunbide Egokien zabalkundea

Bisitetan kooperatibisten parte-hartzea bultzatzeko egin den ahalegina gorabehera, horietako batzuetan izandako parte-hartze apalak, FAGORen kasuan gertatu zen bezala, pentsarazten du hautaturiko esperientziak, beren erreferenteak gorabehera, ez direla (beren tamainagatik edo kooperatiba horiekiko dagoen pertzepzioagatik) guztiz aplikagarriak edo estrapolagarriak beste kooperatiba txikiago batzuetara. Horregatik, hurrengo edizioetarako zera iradokitzen da: MCCkoak ez diren kooperatibentzat dinamika edo kudeaketa-praktika estrapolagarriagoak dituzten kooperatibak aukeratzea.

Prestakuntza kooperatiboa

Ez da eratu **Unibertsitateen arteko koordinazio-plataforma**. 2010eko Kudeaketa Planean, helburu egingarriagotzat ikusi da Kontseiluan ordezkariak duten unibertsitateetako Ikasketa Kooperatiboetako Institutuen ordezkarien lan-talde bat osatzea.

Prestakuntza arloko Jarduera Planari dagokionez, esan behar da unibertsitateko ez den irakaskuntzan "ikaskuntza kooperatiboa" metodologiaren bidez prestakuntza kooperatiboa garatzeko proposamena egin dela.

PROMOKOOPekin lankidetzak

Kooperatiba-Sustapenerako Fundazioarekin (PROMOKOOP) lankidetzak proposa-

mena aztertu da, eta Kontseilu honen aldetik Fundazioan balizko parte-hartzearen modalitatea zehaztu da, eta Fundazioak bere aldetik planteatu du une egokiago batean parte-hartzea Kontseiluak.

Txosten sozio-ekonomikoa

“2006/2007 Gizarte Ekonomiaren Kontuetan” bildutako datuak behar hainbat aurrez erabilgarri ez izateak Txosten hau hurrengo ekitaldira atzeratzea ekarri du, baina krisi ekonomikoak euskal kooperatibetan izandako eraginari buruzko atala bai, hori egin da.

Senior aholkulariak

Elkartek eta Elkar-Lan S.Coop.ek planteaturiko lankidetzak eskabideei erantzuteaz gain, MCCkoak ez diren kooperatiben artean Zerbitzu honen ezaugarriak zabaldu dira kooperatibetatik eskabideak bultzatzeko xedearekin.

2009ko ekitaldian aipatzekoa da senior aholkulariek egindako ahalegina krisiak kooperatibetan dituen eraginak arintzera bideratutako ekimen posibleen eremuan, nabarmentzekoa izanik aholkulariek prestakuntza-ekintzetan laguntzeko egindako eskaintza, baita lankidetzak sustatzeko eremuan ere.

Erakunde partaidetuak

Aipagarriak dira 2009ko ekitaldian lorturiko emaitza onak, bai **Oinarri S.G.R.**ek formalizaturiko abalen kopuruan (%157ko

desbideratze positiboarekin KPn 2009ko azaroan metaturiko aurreikuspeni buruz), eta bai **Elkar-Lan S.Coop.**ek 2009ko ekitaldian eraturiko kooperatiba-kopuruan (70) eta sorturiko enpleguetan (234), lurraldeen arabera honela banatuta:

| Lurraldea | Kooperatiba-kopurua | Sorturiko enpleguak |
|-----------------|---------------------|---------------------|
| Araba | 11 | 31 |
| Bizkaia | 30 | 98 |
| Gipuzkoa | 29 | 105 |
| GUZTI RA | 70 | 234 |

Elkar Ikertegia S.Coop.ek garaturiko jardueri dagokienez, gai hauetaz egindako azterlanak azpimarra daitezke:

- Lan-aurrerakinaren eta itzulkin kooperatiboaren tratamendu juridikoa.
- Borondatezko erreserben banakatzeari buruzko araubide juridikoa, bazkide ez direnei ekarpenak eskualdatzeko aukera eta Nahitazko Funtsen kalkulu-oinarria.

Erakunde laguntzaileekin egindako Hitzarmenen bidez gauzaturiko jarduerak Kooperatiba-sustapenerako programen garapenean

Sustapen eta zabalkundearen arloan bultzatu nahi diren jardunbide edo ekintza-ildoak aurrez zehaztu ondoren Kontseiluak, eta ildo horiek garatzeko erakunde laguntzaileek aurkezturiko proposamenak aukeratu ondoren, guztira 490.408 € bideratu dira ondoren zehaztuko diren programa hauek kofinantzatzera:

1) Bidaia teknikoa Suitzara (F.C.A.E.)

Suitzara bidaia egin da: guztira 62 lagun joan dira 2009ko irailaren 6tik 12ra, eta aurrez ikusitakoaren ara-bera bete da jarduera-programa.

2) Jardunbide Egokien Diagnostikoa (F.C.A.E.)

Nekazaritzako zenbait kooperatibaren artean banan-banako diagnostikoa egin da, jardunbide kooperatibo onak aztertu dira, eta sektoreko enpresekiko duten lehiakortasun-maila.

3) 2008ko Urteko Oroitidazkia (F.C.A.E.)

Federazioaren Urteko Txostena egin da *Global Reporting Initiative* (GRI) eta EFQM adierazleen aurkibideari jarrai-tuz.

4) 5S-en ezarpena (F.C.A.E.)

5S sistema ezartzen lagundu da nekazaritzako zenbait kooperatibatan; halaber Kalitaterako Euskal Fun-dazioak Arloko 5S Aitorpena eman dio Nekazaritzako Kooperatiben Federa-zioari.

5) Esne-Kooperatiben 50. urteurrena (F.C.A.E.)

Beyena, Gurelesa eta Copeleche euskal esne-kooperatiben bilakaera eta espe-rientziak biltzen dituen liburu bat egin da.

6) Kooperatiba-kudeaketako gidaliburuak (F.E.C.O.E.)

Gai berberei buruz jada argitaraturik dauden eskuliburuak edukiak eguneratzea eta informazioaren erabilera erraztea dute helburu.

7) Lehiakortasunerako lankidetzak (F.E.C.O.E.)

Kontsumoko Kooperatiben Diagnostiko Lehiakor indibidual eta sektorialerako Lankidetzak Plan bat ezartzeko proiektu bat egitea.

8) Zabalkunde-kanpaina Hedabideetan (ERKIDE)

Federazioak, irratian, prentsan eta telebistan zenbait jarduera egin ditu, batez ere hiru helburu hauek lortzera bideratuta:

- Balio eta printzipio kooperatiboak jendar-tean zabaltzea.
- Lan Elkartuko, Irakaskuntzako eta Kredituko kooperatibismoa prestigiozko sozietate-era bezala aurkeztea.
- ERKIDEn kooperatibismoaren era-kunde kohesionatzailea bere premiei lankidetzatik erantzuna emateko prestatua.

9) KOOP aldizkaria (ERKIDE)

KOOP-Euskal Enpresa Kooperatiboa aldiz-karia finantzatzen lagundu da; zabalkunde handia du kooperatiba, aholkularitza-enpresa, hedabide, Kooperatiben Mugimenduko erakunde eta erakunde publikoen artean.

10) Elkar – Euskaraz Programa (ERKIDE)

“Elkar-euskara” hizkuntza-laguntzarako zerbitzua ezartzeak izandako kostuak finantzatzen lagundu da; kooperatibetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan eraginkortasunez laguntzeko helburua du zerbitzu honek.

11) 5S-en ezarpena (ERKIDE)

5S-ak funtsezko kontzeptuak biltzen dituen kudeaketa-tresna baten parte dira, eta horien inguruan langileek eta enpresak berak baldintza egokiak lor ditzakete kalitatezko produktuak edo/eta zerbitzuak egin eta eskaintzeko.

12) Autotxekeo juridikoa (ERKIDE)

Kooperatiben artean “Kooperatibentzako Gidaliburu juridikoa” zabaldu da, kooperatibaren jarduera arautzen duten lege eta araudien hainbat alderditan autotxekeo juridikoa egiteko tresna bat eskura izan dezaten.

13) Kooperatiba Txikien Legearen zabalkundea (ERKIDE)

Postaz, diptikoak banatuz eta irratiz zabalkunde-kanpaina egin da, Kooperatiba Sozietate Txikien Legeari buruzko alderdi nagusiak jakinarazteko, bai kooperatiben erroldan daudenentzat eta bai publiko guztiarentzat oro har.

14) Balantze Soziala (ERKIDE)

Iraunkortasun Txostena sartu da, eta hor sartzen dira gai nagusiak, besteak beste, enplegu-kalitatearen adierazleei, gizarte-ehunaren kohesioaren bilakaerari eta kooperatiben arteko lankidetzari buruzkoak.

15) Vademecum dokumentazioa (ERKIDE)

Legez ezarritako aginduzko izapide juridiko-administratiboetarako inprimak egoki betetzeko laguntza

16) Irakaskuntzako Kooperatiben II. Batzarra (ERKIDE)

II. Batzarra laburtzeko esan daiteke bere helburua hau izan dela: irakaskuntzako euskal kooperatibismoari dagozkion alderdi guztietan erreferentziazko egitura gisa sendotzea ERKIDE-Irakaskuntza.

17) Prestakuntza-premiak (ERKIDE)

ERKIDEn Irakaskuntza Arloko Taldean sartutako kooperatibetan dauden bene-tako prestakuntza-premiak aztertu eta horien ziurtasuna lortu da, eskari horiei erantzute aldera zenbait ekintza proposatzeko.

18) Euskara-maila Hobetzeko Plana (ERKIDE)

Irakaskuntzako euskal kooperatibetan Euskararen hizkuntza-gaitasunean hobetzea bai Lehen Hezkuntza eta bai Bigarren Hezkuntza bukatzean.

19) Bisitak Holandako ikastetxeetara (ERKIDE)

PISA nazioarteko ebaluazioaren arabera eskola-eremua onak, eta denboran mantenduak, dauzkan europar herrialde baten hezkuntza-sistemaren antolaketa orokorra eta esperientziak ezagutzea izan zen bidaiaren xedea, eta horretarako emaitza onak zituzten hainbat ikastetxe ikusi ziren.

20) Ikerketa enpirikoko programa (M.U. - ETEO)

Egindako ikerketak ondorio interesgarriak emango ditu laneko kooperatibetan eta orokorrean euskal enpresetan hazkundera eta lehiakortasuna bultzatuko dituzten politikak garatzeko. Ekarpengarrantsua egin da enpresa-aniztasunaren eta bere gobernuaren azterketa ekonomiko-korako. Proiektu honekin lotuta, parte-hartzaileek nazioarteko ikerketa-proposamena prestatu dute, Euskal Herriko, Frantziako eta Italiako enpresa konbentzional eta kooperatibetan datu-lagin handia erabiliz egingo litzatekeen lan enpiriko konparatiboa.

21) Genero-berdintasuna. Organoetan sartzea (M.U. - ETEO)

Ikerketa honetan “Kooperatibetako Kontseilu Errektoretan sartzea gizon-emakumei erraztu edo zailtzen dieten oztopoak eta aukerak aztertu dira, posible izan dadin kooperatibetako gobernu- eta ordezkaritza-organoetan parekotasuna lortzeko ekintzak proposatzea”.

22) Mondragon Bilduma (M.U. - ETEO)

Gizarte-ekonomian eta kooperatibismoan espezializaturiko “Mondragon Bilduma”ren barruan bi zenbaki argitaratzen lagundu da.

23) Unión Comunal Dassa (F.R.M.)

Batasunaren eta ekoizleen gaitasunak indartzea eta hobeto antola daitezen laguntzea bilatzen du proiektuak, etekin ekonomiko handiagoa lortzeko helburuarekin.

24) Mondragon prestakuntza kooperatiboa (M.U. - LANKI)

Arrasateko kooperatibetan prestakuntza kooperatiboa hedatzeko laguntza.

25) Nazioarteko lankidetzak (Mundukide)

TGC-ren lehen fasea jarri da abian: ikastaro hau oinarritzeko tresna da ezarritako familiei beren ekimenak gaikuntza handiagoz kudeatzen laguntzeko, errenta handiagoa lortu eta ekonomia-, giza eta gizarte-garapenean maila handiagoa lortzen laguntzeko.

26) Mapa kooperatiboaren sorkuntza eta garapena (EHU/U.P.V.)

Euskal kooperatibismoari buruzko informazioa kudeatzen, eta informazio geografikoaren sistema diseinatzeko proiektua sortzen lagunduko duten tresnak eman dira.



BITARTU-ren oroitidazkia

“BITARTU”-Kooperatibetan gatazkak konpontzeko Euskal Zerbitzuaren helburua, gatazkak konpontzea ez ezik, prebenitzea ere bada. Bere jarduera “Euskal Kooperatibetan Gatazkak Konpontzeko prozedurei buruzko Araudiak” (EHAA 2004-09-21) arautzen du, eta hor, besteak beste, ondorengo bideak ezartzen dira gatazkak konpontzeko:

- Arbitrajaea
- Adiskidetzea
- Bitartekotza
- Esku-hartzea

Hona hemen laburtuta BITARTUK 2009ko ekitaldian izan duen jarduera:

Arbitrajeak

- ARB. 1/2009: Bazkide kopuru zabal baten informazio-eskubideaz.
- ARB. 2/2009: Bazkide baten informazio-eskubideaz (Akta-kopia...).
- ARB. 3/2009: Bazkide batek ekonomia-eta finantza-gaiei buruz Kooperatibari egindako informazio-eskabideaz.
- ARB. 4/2009: Bazkide baten aurka Kontseilu Errektoreak zigor-espeditentia hasteko erabakiari “aurka egiteaz”.
- ARB. 5/2009: Bazkide baten eskubide sozio-ekonomikoen aurka Kooperatibak egindako urraketaz.
- ARB. 6/2009: Arbitrajera makurtzeko klausularik ez duen Kooperatiba batean kalte-ordainak emateaz, baina oraindik inork ez daki azkenean BITARTUren arbitrajaea onartuko duen edo ez.
- ARB. 7/2009: Borondatezko baja justifikatu gabetzat jotzeari eta itzuli beharreko ekarpenetan egin nahi diren kenketei “aurka egiteaz”.
- ARB. 8/2009: Bazkide baten aurka zigor-espeditentia hasteko erabakiari “aurka egiteaz”.
- ARB. 9/2009: Hainbat bazkideren informazio-eskubideaz.



- ARB. 10/2009: BITARTUK onartu gabeko (artxibatutako) arbitraje-eskabidez, xedapen libreko gaia ez zela uste baitzuen.
- ARB.-11/2009: Merkaturatzeko produktu-likidazioaz.
- ARB. 12/2009: Borondatezko bajaranegatik aplikaturiko kenketaz.
- ARB. 13/2009: Bazkidearen aurka zigor ekonomikoarekin bukaturiko diziplina-zigorraz.
- ARB. 14/2009: Kooperatiba-barneko birkokatze-prozesuan lan-egoerak aitortzeaz.
- ARB. 15/2009: Kanporatua izateagatik eman beharreko kalte-ordainen erreklamazioaz.
- ARB. 16/2009: Kopuru baten erreklamazioaz.
- Gainera, 2006, 2007 eta 2008 ekitaldietako espedientei dagozkien laudoekin liburua editatu eta argitaratu da, baina horren banaketa 2010eko lehenengo hiruhilekora atzeratu da.

Adiskidetzea

CON1/2009: Bazkide batek merkataritza-lokala erosteko konpromisoa betetzea.

Bitartekotzak

Bitartekotza Eskuliburua idatzi eta argitaratu da, eta horren banaketa 2006, 2007 eta 2008 ekitaldietako laudoekin batera egingo da. Testuaren egileak BITARTUK izendaturiko bitartekariak izan dira.

Esku-hartzeak

INTER 1/2009: Obra-bukaerari dagozkion ordainketa-baldintzak, baita egiteke dauden konponketak gauzatzearen formalizazioa Etxebizitza Kooperatibaren eta Enpresa Eraikitzailearen artean.

INTER 2/2009: Gatazka birbideratzea Kooperatiba-barneko konpontze-prozedurara.

Ikastaroak eta Jardunaldiak

Ondorengo jarduerak egin dira:

- Abenduaren 3an Kontseiluaren egoitza sozialean Jardunaldi Teknikoa egin zen honetaz: *“Arbitrajea: Prozedura laburtua”* eta hor BITARTUKo teknikari eta arbitroez gain, Mitxel Unzuetak, Bilboko Merkataritza Ganberaren Arbitraje Epaimahaiko presidentek, parte hartu zuen; bertaratuen ekarpenek oso balorazio ona izan zuten eta interes handiko ondorioak atera ziren BITARTUren aldetik aplikazio praktikoa egiteko. Jardunaldiaren aurkezpena Felipe Yarritu Kontseiluko presidentek egin zuen, eta bukaera Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak, José Manuel Fínez-ek, eman zion.

Beste jarduera batzuk

- Kooperatiba guztietara informazio-zirkular bat bidali da, arbitraje kooperatibora makurtzeko klausula beren Estatutu Sozialetan sartzeko aukerari buru



CSCCE-EKGG-ren osaera



2009ko ekitaldian ordezkatzeko hauek izan dira Kontseiluaren osaeran:

- Alde batetik, Eusko Jaurlaritzan izandako aldaketaren ondorioz, kontseilari izateari utzi diote Jesús Alfredo Ispizua jaunak (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila), Iñaki Mujika Aizpurua jaunak (Unibertsitate, Hezkuntza eta Ikerketa Saila), eta Isabel Sola Brea andreak (Nekazaritza eta Arrantza Saila); eta sartu egin da José Felipe Yarritu Díaz jauna (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila).

- 2009-7-9an egindako Osoko Bilkuran eta indarrean dagoen araudiaren arabera, lehendakari berria izendatu zen: José Felipe Yarritu Díaz jauna, alegia.

Beste aldetik, ordezkatzeko hau izan da:

- Andoni Zendoia Alkorta jauna (Erkide-ikaskuntza) sartu da Imanol Igeregi Bilbao jaunaren ordez.
- Beraz, eta Eusko Jaurlaritzaren beste bi ordezkarien izendapen formala falta zelarik, Kontseiluaren osaera honako hau zen ekitaldiaren bukaeran:

Lehendakaria

José Felipe Yarritu Díaz jna. Eusko
Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte
Gaietako Saila

Lehendakariordea

Patxi Ormazabal Zamakona jna. Erkide

Kontseilariak

Alejandro Martínez Charterina jna.
Deustuko Unibertsitatea

Baleren Bakaikoa Azurmendi jna.
Euskal Herriko Unibertsitatea

Jose M^a Aizega Zubillaga jna.
Mondragon Unibertsitatea

Alfredo Montoya Estibalez jna.
Nekazaritzako Kooperatiben
Federazioa

Alejandro Martínez Berriotxoa jna.
Kontsumoko Kooperatiben Federazioa

Juan M. Larrañaga Zabala jna. Erkide

Andoni Zendoia Alkorta jna. Erkide
Irakaskuntza

Juan M^a Concha Aspiroz jna. Erkide

Gonzalo Saez de Ibarra Martinez de
Estarrona jna. Garraiolarien
Kooperatiben Federazioa

Halaber, ekitaldiaren bukaeran
Batzordeen osaera honako hau zen:

Sustapena

Juan M^a Concha jna. (lehendakaria)

Jose Felipe Yarritu jna.

José M^a Aizega jna.

Alfredo Montoya jna.

Andoni Zendoia jna.

Gonzalo Saez de Ibarra jna.

Araubide Juridikoaren Batzordea

Juan M. Larrañaga jna. (lehendakaria)

Patxi Ormazabal jna.

Baleren Bakaikoa jna.

Alejandro Martínez Charterina jna.

Andoni Zendoia jna.

Alejandro Martínez Berriotxoa jna.

Kontseiluko langileak

Ekitaldi honetan Ion Azpiazu Elgea
jauna sartu da administrari gisa,
lan-utzialdi edo eszedentzia eman
zaiolako Ricardo Moreno Azpeitia
jaunari, eta beraz honako hau da
osaera:

Juan Luis Arrieta jna. (Idazkari Orokor
Teknikoa)

Gotzon Gondra Elgezabal jna. (Abokatu
Aholkularia)

Ion Azpiazu jna. (Administraria)



aurrekontuari dagozkionak

Egoera Balantzea abenduaren 31n

CIF: Q-5150003-A

(euroak)

| AKTIBOA | Ohar | 09.12.31 | 08.12.31 |
|--|----------|------------------|------------------|
| A) AKTIBO EZ KORRONTEA | | 4.702.738 | 6.073.386 |
| I. Ibilgetu ukiezina | 5 | 281.001 | 284.226 |
| Erabilera-lagapenak | | 273.584 | 282.594 |
| Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak | | 7.116 | 1.091 |
| Informatika-aplikazioak | | 301 | 541 |
| II. Ibilgetu materiala | 6 | 47.892 | 62.909 |
| Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat | | 47.892 | 62.909 |
| III. Inbertsio higiezinak | 6 | 153.160 | 153.160 |
| Lursailak eta eraikuntzak | | 153.160 | 153.160 |
| V. Epe luzerako finantza-inbertsioak | 7 | 4.220.685 | 5.573.091 |
| Ondare-tresnak | | 540.098 | 534.698 |
| Hirugarrengeentzat kredituak | | 3.679.969 | 5.037.775 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | | 618 | 618 |
| B) AKTIBO KORRONTEA | | 3.347.829 | 2.749.280 |
| III. Merkat.-zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk | 7 | 739.836 | 785.719 |
| Beste zordun batzuk | | 739.836 | 785.719 |
| IV. Epe laburrerako finantza-inbertsioak | | 4.059 | 23.773 |
| VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | | 2.603.934 | 1.939.788 |
| AKTIBOA GUZTIRA | | 8.050.567 | 8.822.666 |

Egoera Balantzea abenduaren 31n

(euroak)

| ONDARE GARBI ETA PASIBOA | Ohar | 09.12.31 | 08.12.31 |
|--|----------|------------------|------------------|
| A) ONDARE GARBIA | | 738.676 | 658.873 |
| A-1) Funts Propioak | 8 | 448.683 | 350.638 |
| III. Erreserbak | | 342.794 | 448.300 |
| VII. Ekitaldiko emaitza | | 105.889 | (97.662) |
| A-3) Jasotako subentzioak, dohaintzak eta legatuak | 9 | 289.993 | 308.235 |
| B) PASIBO EZ KORRONTEA | | 6.461.906 | 7.402.712 |
| I. Epe luzerako hornidurak (FAEC) | 10 | 4.545.342 | 4.807.245 |
| II. Epe luzerako zorrak | 11 | 1.916.564 | 2.595.467 |
| Epe luzerako beste zor batzuk | | 1.916.564 | 2.595.467 |
| C) PASIBO KORRONTEA | | 849.985 | 761.081 |
| IV. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk | | 849.985 | 761.081 |
| Beste hartzekodun batzuk | 11 | 849.985 | 761.081 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA | | 8.050.567 | 8.822.666 |

Galdu-Irabazien Kontua abenduaren 31n

CIF: Q-5150003-A

(euroak)

| Kontzeptuak | Oroitid. oharrak | (Zor) Hartzeko 09.12.31 | (Zor) Hartzeko 08.12.31 |
|---|------------------|-------------------------|-------------------------|
| Hornidurak | | -19.253 | -29.203 |
| c) Beste enpresa batzuek egindako lanak | | -19.253 | -29.203 |
| Ustiapeneko beste sarrera batzuk | 12 | 1.763.871 | 6.239.853 |
| a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk | | 770.568 | 5.271.355 |
| b) Ustiapeneko diru-laguntzak ekitaldiko emaitzan sartuak | | 993.303 | 968.498 |
| Pertsonal Gastuak | | -172.438 | -172.944 |
| a) Soldatak, ordainsariak eta asimilatuak | | -142.055 | -139.836 |
| b) Zama sozialak | | -30.383 | -33.108 |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | | -1.472.534 | -6.158.294 |
| a) Kanpoko zerbitzuak | 12 | -135.080 | -150.610 |
| b) Zergak | | -1.488 | -1.435 |
| c) FAEC hornidura dotazioa | 10 | -738.374 | -5.231.714 |
| d) Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk | 12 | -597.592 | -774.535 |
| Ibilgetzearen amortizazioa | | -26.133 | -29.648 |
| Finantzariora ez den ibilgetzeko subentzioen egozpena eta besterik | | 26.133 | 29.648 |
| USTIAPENeko EMAITZA | | 99.646 | -120.588 |
| Finantza-sarrerak | | 6.243 | 22.951 |
| b) Balio negoziagarriak eta beste finantza-tresna batzuk | | 6.243 | 22.951 |
| Finantza-gastuak | | 0 | -25 |
| b) Beste batzuekiko zorreatatik | | 0 | -25 |
| FINANTZA-EMAITZA | | 6.243 | 22.926 |
| ZERGEN AURRETIKO EMAITZAK | | 105.889 | -97.662 |
| EKITALDIKO EMAITZA | | 105.889 | -97.662 |

Galdu-Irabazien Kontua abenduaren 31n

(euroak)

| Sarrera Aurrekontua | 2909 Aurrekontua | 09.12.31 Errealak | % Gauzatzea |
|--|---------------------|----------------------|----------------|
| OHIKO SARRERAK | 1.030.000 | 999.546 | 97,04% |
| - Aurrekontuko diru-zuzkidura | 1.001.000 | 993.303 | 99,23% |
| - Ohiko bestelako sarrerak | 29.000 | 6.243 | 21,53% |
| SARRERA BEREZIAK | 1.118.000 | 1.800.006 | 78,23% |
| - Kitatzeak eta eraldaketak | 950.000 | 1.772.214 | 186,55% |
| - Bestelako finantza-sarrerak | 58.000 | 24.454 | 42,16% |
| SARRERAK guztira | 2.115.000 | 2.799.552 | 137,37% |
| GASTU AURREKONTUA | | | |
| PERTSONAL GASTUAK | 177.000 | 172.438 | 97,42% |
| FUNTZIONAMENDU-GASTUAK | 117.000 | 111.862 | 95,61% |
| Bidaiak, egonaldiak, leku-aldatzeak | 10.000 | 11.163 | 101,94% |
| Kuotak eta harpidetzak | 7.000 | 5.369 | 155,37% |
| Osoko Bilkuretara eta Batzordeetara joatea | 42.000 | 29.118 | 133,45% |
| Azpikontratazioa | 16.000 | 19.253 | 116,81% |
| Bestelako funtzionamendu-gastuak | 42.000 | 46.960 | 120,33% |
| IZAERA OROKORREKO JARDUERA GASTUAK | 37.000 | 43.738 | 118,21% |
| ZUZENEAN EGINDAKO JARDUERAK | 140.000 | 132.188 | 94,42% |
| ERAKUNDE PARTAIDETUAK | 180.000 | 171.898 | 95,50% |
| ELKARTZE-EGITUREN KOFINANTZAKETA | 420.000 | 438.995 | 104,52% |
| FAEC HITZARMEN JARDUERAK | 475.000 | 853.368 | 179,66% |
| ERAKUNDE LAGUNTZ. HITZARMEN JARDUERAK | 528.000 | 493.122 | 93,39% |
| FAEC GASTUAK | 5.000 | 2.411 | 48,22% |
| GASTUAK guztira | 2.079.000 | 2.420.020 | 116,23% |
| AURREKONTU EMAITZA | (36.000) | 379.532 | |

Ondoren, 2009ko ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren eta kontabilitate-emaitzaren arteko bateratzea aurkezten da::

(euroak)

| Kontzeptua | Zenbatekoa |
|--|--------------------|
| AURREKONTU-EMAITZA – DEFIZITA | 379.532 |
| KONTABILITATEKOAK EZ DIREN AURREKONTU-SARRER. | (1.800.006) |
| KONTABILITATEKOAK EZ DIREN AURREKONTU-GASTUAK | 1.520.799 |
| - Koop. Sustapen Jarduera Hitzarmenak | 493.122 |
| - Hitzarmenak FAEC Elkarteak | 853.368 |
| Erakunde partaidetuak- | 171.898 |
| FAEC Gastuak | 2411 |
| AURREKONTUKOAK EZ DIREN KONTABIL.-SARRERAK | |
| Beste Sarrera batzuk | 5.564 |
| Aurrekontukoak ez diren kontabilitate-sarrerak | 26.133 |
| - Kapital-subentzioak emaitzara intsuldatuak | 26.133 |
| AURREKONTUKOAK EZ DIREN KONTABILITATE-GASTUAK | (26.133) |
| - Amortizazioak | (26.133) |
| EKITALDIKO EMAITZA | 105.889 |



estadistika- eranskina

Estadistika-Eranskina

KOOPERATIBAK 2009KO ABENDUAREN 31N

| MOTAK | Guztira | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|-------------------------------|-------------|------------|------------|------------|
| NEKAZARITZAKOAK | 97 | 49 | 24 | 24 |
| ENPRESA-ELKARTEAK | 1 | 1 | | |
| KONTSUMOKOAK | 34 | 4 | 16 | 14 |
| KOOPERATIBA KORPORAZIOAK | 1 | | | 1 |
| KREDITUKOAK | 1 | | 1 | |
| BIGARREN MAILA EDO GORAGOKOAK | 48 | 10 | 12 | 26 |
| IRAKASKUNTZAKOAK | 94 | 11 | 44 | 39 |
| ERKIDEGOAN USTIATZEKOAK | 6 | 2 | 2 | 2 |
| MISTOAK | 27 | 4 | 3 | 20 |
| ENPRESA-ZERBITZUAK | 36 | 5 | 8 | 23 |
| ZERBITZU PROFESIONALAK | 45 | 7 | 22 | 16 |
| LAN ELKARTUKOAK | 1072 | 147 | 464 | 461 |
| ETXE BIZITZA-KOOP. | 251 | 106 | 74 | 71 |
| LAN ELKARTUKO KOOPER. TXIKIAK | 92 | 13 | 44 | 35 |
| GUZTIRA | 1805 | 359 | 714 | 732 |

Estadistika-Eranskina

2009. ekitaldian EAEn eraturako Kooperatibak

| MOTAK | Guztira | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|-------------------------------|------------|-----------|-----------|-----------|
| NEKAZARITZAKOAK | 3 | 2 | 1 | |
| KONTSUMOKOAK | 1 | | | 1 |
| IRAKASKUNTZAKOAK | 1 | | 1 | |
| MISTOAK | 9 | 2 | 1 | 6 |
| ENPRESA-ZERBITZUAK | 1 | | 1 | |
| LAN ELKARTUKOAK | 15 | 1 | 5 | 9 |
| ETXE BIZITZA-KOOP. | 18 | 2 | 14 | 2 |
| LAN ELKARTUKO KOOPER. TXIKIAK | 83 | 11 | 39 | 33 |
| GUZTIRA | 131 | 18 | 62 | 51 |

